



2011 OROITIDAZKIA



EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15
48005 Bilbo

Tel.: 94 415 81 55
Fax: 94 415 81 44

info@euskaltzaindia.net
www.euskaltzaindia.net



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
1. Erakundearen Jarduerak	7
I. Barne jarduera	7
II. Kanpoko jarduera	12
2. Akademia Jarduera	17
I. Hiztegegintza	18
II. Gramatika	22
III. Dialektologia	22
IV. Onomastika	24
V. Literatura	26
VI. Jagon saila	28
VI.I. Corpus batzordea	
VI.II. Euskalkien lantaldea	
VI.III. Sustapen batzordea	
VI.IV. <i>Joanes Etxeberri</i> egitasmoa	
VII. Egiturazko batzordeak	30
VII.I. Azkue Biblioteka batzordea	
VII.II. IKT batzordea	
VII.III. <i>Euskaltzaindiaren Historia</i> egitasmoa	
VII.IV. <i>Erlea</i> aldizkaria	
VIII. R. M. Azkue sariak	34
3. Erakundearen Zerbitzuak	37
I. Azkue Biblioteka	38
II. Onomastika zerbitzua	39
III. Argitalpen zerbitzua	40
IV. Argitalpen/banaketa zerbitzua	41
V. IKT zerbitzua	41
VI. Prentsa eta komunikazio zerbitzua	41
VII. <i>Jagonet</i> zerbitzua	42
4. Herri administrazio eta erakundeak	43
5. Webgunea eta gizarteratze lana	47
6. Emaidza ekonomikoak	51
I. Egoera-balantzea	52
II. Galdu-irabazien kontua	53



Aurkezpena

Xabier Kintana Urtiaga, *Euskaltzaindiko idazkaria*



BERRIRO ERE, pasa den urteko zeregin burutuenera zerrendari hitzaurrea egitea dagokit, eta Euskaltzaindiak tarte horretan lorturiko emaitzak gogoratzeaz batera, urte batetik hurrengora denbora zein arin igaro zaigun kontura gaitzke, Virgiliok bere *Georgicaetan* esanik utzi zigun *fugit irreparabile tempus* haren arabera.

Hitz gutxitan eta laburki esateko, Euskaltzaindiaren azken urtebeteko lana bere helburuak adierazten dituen dibisa ezagunak adierazten digu: *ekin eta jarrai*. Izan ere, hizkuntzaren akademia guztiek, nola edo hala, xede bikoitz hori bete ohi dute: batetik, beren gelditu gabeko ekintzarekin mintzairaren onerako lanetan jardun eta, bestetik, desafio berriei aurpegia emanaz, denboran iraun, gure belaunaldien arteko kate historikoa osatzen duen euskararen normaltze, aldatze, egokitze eta hobetze etengabeari begira.

Baina edozein lan etekinik aterako bazaio, jardunean hasi baino lehenago, komeni ez eze, beharrezkoa ere bada aurrez lanaren plangintza egitea, ahalik eta zehatzenik. Zer falta zaigun,

zer behar dugun, premiak beren garrantziaren arabera ordenatu, eta horretarako lan-taldeak behar bezala antolatu, horien kostuen hornidura ongi aurreikusi behar dela ahantzi gabe. Gogora dezagun, hau guztiau lehenago ere premiazkoa izan bada, are beharrezkoago gertatzen zaigula aspaldiko krisi egoera larri honetan.

Horrexegatik, eskura ditzakegun baliabide eta laguntza ekonomikoak nola banatu ere zuhurki erabaki beharko dugu, administrazioetatik jasoriko funts publikoen erabilera, azken buruan, gizartearen aurrean ondo justifikatu beharko dugula jakinda.

Gurea ez da dirua irabazteko asmoz sorturiko akademia, euskal gizarte osoaren zerbitzurako erakundea baizik, beraren atal guztiek, hizkuntzari dagozkionetan behar dituzten argibideak, ikerketak, aholkuak eta arauak erabaki eta plazaratzen dituen. Baina lan horietarako laguntza behar dugu. Jada 2010. urtean Euskaltzaindiak programa-kontratu bat sinatu zuen Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Diputazioekin, bakoitzaren konpromisoak zehazteko. Horren arabera,

2011. urteko maiatzeko barne-jardunaldietan Euskaltzaindiak bost ildo estrategiko jarri zituen, horiei jarraitzeko: 1) Ikerketa eta araugintza indartzea. 2) Euskaltzaindiaren lana gizarteratzea. 3) Euskaltzaindiaren lana zerbitzuen bidez gizartean nabarmenago agertzea. 4) Erakundearen barruko lana eraginkorrago bihurtzea, eta 5) Akademiaren jardunari eusteko eta bera indartzeko asmoz, finantzabide berriak lortzea. Eta hori guztia iaz 2012ko plana prestatzean finkatu zituen hamaika erronkak goioan izanda.

Hurrengo orrialdeetan zehar, aurretik jarritako helburu-programaren arabera, 2011n aitzineratu eta mamituriko emaitzak aurkituko dituzue. Egia esan, ez da erraza izan, burutu nahi diren xede guztiak lortzea, eta oso bereziki, goian aipaturiko arrazoiengatik, baliabide ekonomikoak neurri handiz murriztu zaizkigunean. Baina emaitzak hor dira, eta argi dago, nolana ere den, Euskaltzaindiko akademiko, laguntzaile eta langile guztien ahaleginei esker, horietara ahalik eta gehien hurbilduak garela.



Irailean, Nafarroa Oinez festarekin bat eginez, euskaltzainak eta Ikastoletako ordezkariak Tafallako ikastolan

1

Erakundearen Jarduerak

I. BARNE JARDUERA

Euskaraz, hau da, euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala da Euskaltzaindia (1919). Hizkuntzaren corpus-az arduratzen da, baina, halaber, baita berorren estatus sozialaz ere. Hortaz, bi sail ditu Euskaltzaindiak, Iker eta Jagon Sailak, bere jardueraren baitan.

Akademiak ezagutza ofizial osoa du, Espainian Erret Akademia bezala (1976), eta Errepublikan Frantsesean Onura publikoko erakunde gisa (1995). Bestalde, bai Gernikako Estatutuak -abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan-, bai eta Nafarroako Gobernuak ere -abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean- euskarari dagokionean Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala onartzen dute.

Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

Akademiaren egoitza Bilbon kokatzen da. Bilbon egin ohi dira hilero Osoko bilkurak eta Zuzendaritzakoak, nahiz eta Donostian, zein beste toki batzuetakoak ere tartekatzen diren. Normalean, hilean bi aldiz biltzen da Zuzendaritza. Erakundearen gobernua, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardun-bidearen agintea eta erantzukizuna dagokio Zuzendaritzari. 2011. urtean 23 bilera egin ditu.

Bestalde, batzorde, egitasmo eta lantaldeak ere egoitzan eta ordezkartzetan biltzen dira. Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei ematen die, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu idazkariordeak, kudeatzailearekin batera.

- I.1. XVII. Barne Jardunaldiak
- I.2. *Euskera* agerkaria ISOC-eko datu-basean
- I.3. Webgune berritua
- I.4. Izendapenak
- I.5. Jean-Baptiste “Battittu” Coyosen sarrera-ekitaldia
- I.6. Euskaltzaindiak Luis Villasante Euskararen Ikerguna inauguratu du
- I.7. Heriotzak
- I.8. Hilberri txostenak



ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.1. XVII. Barne Jardunaldiak

Aurtengo martxoaren 25ean, Donostiako Kursaal, egin dira Euskaltzaindiaren XVII. Barne Jardunaldiak. Besteren artean, Jardunaldi hauetan bereziki Euskaltzaindiaren Plan Estrategikoa eta Barne-Erregelak eguneratzeko proposamena landu dira.

Barne-erregelari dagokienez, maiatzaren 27an, osoko batzarrean, onartu dira. Plan Estrategikoa, aldiz, hainbat osoko batzarretan aztertu da. Hala, maiatzean haren ildo nagusiak berretsi dira; uztailean, Plana garatzeko hurrengo urratsak aurkeztu eta berretsi dira; irailean, Plan Estrategikoaren 2012ko planak, behin-behineko aurrekontuak eta jardueren diagrama berria aurkeztu dira; eta azaroan Plan Estrategikoa eta 2012. urterako aurrekontuak onartu dira.

I.2. *Euskera* agerkaria ISOC-eko datu-basean

Euskera ISOC-eko datu-basean indizatzen da. CSIC erakundeak kudeatzen du ISOC, eta Giza Zientzia eta Humanitateen esparruan, Estatu Espainoleko aldizkariaren ekoizpen zientifikoa

bildu eta zabaltzen duen datu-basea da. Hala, nazioarteko mailan esanguratsuak diren datu-baseetan *Euskera* agerkaria kontsultatu ahal izateko ahaleginak egiten ari da Akademia. Orain, ISOC-eko datu-basean, *Euskera* agerkariari C kategorია eman zaio eta bertan argitaratzen diren ikerketa artikulua, Hizkuntza eta Literatura sailean indizatzea onartu da.

I.3. Webgune berria

Euskaltzaindiak bere webgunea berri du, eta itxura aldatzeaz gain, eduki berriak ere gehitu dizkio. Aurkezpena uztailearen 22an egin da, Akademiaren egoitzan.

Webgune berriak betidaniko informazioa ematen du: batetik, erakundeari buruzko informazio zabala, eta bestetik, Euskaltzaindiaren Arauak, Hiztegi Batua, Izendegiak, Corpusak edota Azkue Bibliotekaren eta Argitalpen Katalogoak ere. Horrez gainera, badira bi eduki berri: Orotariko Euskal Hiztegiaren bertsio berria eta *Auspoa* bildumaren artxiboa; azken bilduma horren liburuak bere webgunean eskaini ahal izateko, Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena eta laguntza izan ditu.

I.4. Izendapenak

Maiatzaren 27an, osoko batzarrean, Joan Mari Torrealdai izendatu da Euskaltzaindiko Bibliotekari akademiko eta Azkue Bibliotekako batzordeko buru berri. Bestalde, Miren Azkarate Argitalpen batzordeko kide izendatu da. Era honetan, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainaren heriotzaren ondorioz zeuden hutsarteak bete ditu Akademiak.

I.5. Jean-Baptiste “Battittu” Coyosen sarrera-ekitaldia

Ekainaren 25ean, Maulen, egin da Jean-Baptiste “Battittu” Coyosen sarrera-ekitaldia. Coyosek *Eüskararen bi dikotomia* izenburuko hitzaldia irakurri du, eta Txomin Peillenek eman dio erantzuna, *Mintzo haren ohoreagatik* izenburuko hitzaldiarekin.



Jean-Baptiste “Battittu” Coyosen sarrera-ekitaldia, ekainaren 25ean, Maulen



ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.6. Euskaltzaindiak Luis Villasante Euskararen Ikerguna inauratu du

Urriaren 28an, Luis Villasante Euskaltzaindiaren Euskararen Ikerguna inauratu da Donostian. Euskaltzaindiak Gipuzkoan dituen zerbitzu, egitasmo eta lantalde guztiak batu dira bertara: ordezkaritza ez ezik, Jagonet Zerbitzua, Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala) eta Euskaltzaindiaren Hiztegitan lan egiten duten taldeak ere. Luis Villasante Euskararen Ikerguna izena hartzen duen eraikina -XVIII. mendeko baseri bat- Donostiako Udalak utzi dio, emakida baten bidez, Euskaltzaindiari. Aipatu beharra dago eraikinaren barruko egokitzapenak egin ahal izateko, Euskaltzaindiak 300.000 euroko laguntza zuzena jaso duela Espainiako Hezkuntza Ministeriotik.



Andres Urrutia euskaltzainburua, Miriam Villasante Villasanteren iloba eta Joxe Mari Arregi Frantziskotarren goardiana "Luis Villasante Euskararen Ikerguna" izena daraman plakaren ondoan



ERAKUNDEAREN JARDUERAK



Jose Antonio Arana Martija



Jose Angel Irigarai Xabier Leteren omenezko hilberri txostena irakurtzen

I.7. Heriotzak

2011n euskaltzain hauek hil dira: Vahan Sarkisian ohorezko euskaltzaina (urtarrilaren 21ean), Fernando Mendizabal euskaltzain urgazlea (martxoaren 22an), Xabier Gereño ohorezko euskaltzaina (apirilaren 8an) eta Jose Antonio Arana Martija euskaltzain emeritua (apirilaren 27an).

I.8. Hilberri txostenak

Urtarrilaren 28an, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, azken urtean hil diren euskaltzainak omentzeko.

Ondoko hilberri-txostenak irakurri dira:

Jorge Cortes Izal (1930-2010) euskaltzain urgazlea. Patxi Zabaleta euskaltzain osoak irakurri du.

Xabier Lete (1944-2010) ohorezko euskaltzaina. Jose Angel Irigarai ohorezko euskaltzainak irakurri du. Txostena irakurtzeaz gain, Irigaraik Leteren poema batzuk ere irakurri ditu. Bernardo Atxagak eta Joxan Goikoetxea musikariak ere parte hartu dute omenaldian.



ERAKUNDEAREN JARDUERAK

II. KANPOKO JARDUERA

Betidanik lan egin du Euskaltzaindiak beste erakundeekin elkarlanean. Hauek dira 2011n era horretan antolatutako ekitaldi batzuk:

Linguae Vasconum Primitiae

Eusko Legebiltzarrekin batera, Euskaltzaindiak Bernart Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburua izan du gogoan 2011n. Otsailaren lean, “Euskara, jalgi hadi plazara” izenburuko erakusketa zabaldu da Eusko Legebiltzarrean, eta bertan euskaraz inprimatu zen lehen liburua ikusgai egon da. Liburua Frantziako Biblioteka Nazionalean dago, Parisen, eta Gasteizko erakusketara ekarri da. Etxeparek idatzitakoarekin batera, XVI. eta XVII. mendeetako euskal literaturaren beste hamahiru lan bildu dira, horien artean Euskaltzaindiak utzitako Joanes Leizarragaren 1571ko *Testamentu Berria*. Erakusketa honen komisarioa Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria izan da eta Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendaria izan du laguntzaile.

Bestalde, abenduaren 2an, *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren argitalpen faksimilea aurkeztu da Eusko

Legebiltzarrean. Jatorrizko testuaz gain, oraingo ortografiarako egokitutako euskarazko bertsioa ere badu edizio berriak, baita gaztelaniazko, frantsesezko, ingelesezko, alemanezko eta italierazko itzulpenak ere. Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak argitara eman dute eta erakunde bion arteko elkarlanaren emaitza da. Xabier Kintana liburuaren koordinatzailea eta edizioaren arduraduna izan da.

Aitzol eta Euskal Pizkundearen urtea

Aurtengo urriaren 17an, 75 urte bete dira Jose Ariztimuño *Aitzol* (Tolosa, 1896 - Hernani, 1936) fusilatu zutela. Aitzol eta bere belaunaldia gogora ekartzeko asmoz, eta omenaldi gisa, 2011. urtea “Aitzol eta Euskal Pizkundearen urtea” izendatu du Tolosako Udalak. Urte osoan zehar egin diren ekitaldietan hainbat erakundek hartu dute parte, eta horien artean Euskaltzaindia izan da. Hala bada, urriaren 14an, Aitzol eta Euskal Pizkundera omendu dituzte Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Jardunaldia Bilbon egin da, Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaia Aretoan. Miren Azkarate euskaltzain eta irakasleak prestatu du egitaraua.

Liburu Azokak eta Koldo Mitxelena Sariak

Apirilean, Sarako Idazleen Biltzarrean parte hartu du Euskaltzaindiak, eta lau liburu aurkeztu. Bilboko eta Durangoko Liburu Azoketan ere izan da, baita Madrileko Liburu Azokan eta Liber Azokan ere.

Bestalde, ekainaren 2tik 12ra, Bilboko Liburu Azokak iraun bitartean, “*Euskera* agerkaria” izeneko erakusketa ikusgai egon da Bilbon, Areatza pasealekuan. Erakusketa Euskaltzaindiak antolatu du, Liburu Azokaren, Bilboko Udalaren eta Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzarekin, eta 92 urte bete dituen *Euskera* Akademiaren agerkari ofizialaren ibilbidea eta edukiak izan ditu hizpide. Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria izan da komisarioa. Uztailean, Donostiako Liburu Azokan ikusgai egon da erakusketa bera.

Apirilaren 4an, Euskaltzaindiaren egoitzan, Euskarazko Tesien II. Koldo Mitxelena Sariak banatu dira. Hauek izan dira sarituak: Zientzia Esperimentalen jakintza-arloa: Koldo Garcia; Ikasketa Teknikoen jakintza-arloa: Maite Oronoz; Osasun Zientzien jakintza-arloa: Jaime Zubero; Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen jakintza-arloa: J. Inazio Marko; eta Giza Zientziaren jakintza-arloa: Idurre Alonso.



Apirilean, Diman, Aita Lino Akesoloren omenezko bilkura egin dute Euskaltzaindiak eta Udalak.

Ekainaren leian, 2an eta 3an, Trebiñuko Konderriko Ikasketa Historikoen I. Kongresua egin da, Trebiñun. Aurten Antso VI. nafar erregeak Trebiñuko hiribildua sortu zueneko

850. urteurrena bete da eta efemeridea ospatzeko, aipaturiko kongresua antolatu da Trebiñu 2011 ekimen kulturalaren barruan, Trebiñuko Udalaren babesarekin. Kongresuan Euskaltzaindia izan da laguntzaile. Hiru egunez Trebiñuko historia, arkeologia eta beste jakintza-arlo izan dira aztergai.

Ezkerretik eskuinera: Xabier Kintana, Andres Urrutia, Koldo Garcia, Maite Oronoz, Jaime Zubero, J. Inazio Marko, Idurre Alonso, Iñaki Goirizelaia (EHU/UPVko errektorea) eta Gidor Bilbao (Euskara eta Eleaniztasunerako errektoreordea), Euskarazko Tesien II. Koldo Mitxelena Sarien emate-egitaldian.



ERAKUNDEAREN JARDUERAK

Nafarroa Oinez, ICOS, Ondarearen Europako Jardunaldiak

Irailean, urteroko ohiturari jarraituz, *Nafarroa Oinez* festarekin bat egin du Euskaltzaindiak, eta irailean, Tafallan, ekitaldi batzuk antolatu ditu Akademiak. Besteren artean, Ikastolen Elkartearekin elkarlanean, *El movimiento de las ikastolas. Un pueblo en marcha* liburua aurkeztu da.

Irailean ere, Euskaltzaindiak ordezkari izan du Bartzelonan, ICOSen (International Council of Onomastic Sciences) XXIV. Biltzarrean. “Izenak eguneroko bizitzan” izenburupean egin den biltzar horretan Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko bi kide izan dira bertan, Akademiaren ordezkari gisa: Patxi Galé eta Mikel Gorrotxategi. Lehenbizikoak, Euskal Corpus Onomastikoa aurkeztu du, bigarrenak, ostera, antolaketa lanetan jardun eta hitzaldi bat ere eman du.

Urriaren zehar, “Argiak eta aurrerapena. Bizkaia Ilustrazioaren garaietan” izenburupean, 2011ko Ondarearen Europako Jardunaldiak egin dira. Aurten, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen ekimen honetan, Euskaltzaindiak hartu du parte. Akademiak urriaren bost egunetan hartu ditu Jardunaldiak: hilaren 6an, 7an, 13an, 14an eta 17an. “Euskara, ondare immateriala”

izenburuko egitaraua prestatu du, eta, esandako egunetan, zazpi hitzaldi eskaini dituzte Xabier Kintanak, Mikel Gorrotxategi, Aritz Abaroak, Josune Olabarriak eta Pruden Gartzia; bisita gidatuak ere egin dira. Hitzaldietan 41 pertsona egon dira, bisita gidatuetan, berriz, 31.

Urriaren ere, “Izanaren izena” izenburupean, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek eta Elgoibarko Udalak prestatutako hitzaldi zikloan parte hartu du Euskaltzaindiak. “Izena duenak izana duelako” azpitulua izan duen ziklo horretan hiru gai izan dira hizpide: Elgoibarko toki-izenak, ahozko euskera, eta euskal izen-abizenen historia.

XVI. Jagon Jardunaldiak

Azaroaren 11n, Akademiaren Sustapen batzordeak antolatuak, XVI. Jagon Jardunaldiak egin ditu Euskaltzaindiak Gasteizen, Artium Museoa. Jardunaldi horiek “Arabatik Arabara euskaraz” izenburua izan dute eta Arabako elkarte eta erakundeekin batera prestatu ditu Akademiak. Gainera, Foru Aldundiaren laguntza izan du. Jardunaldietan euskararen iraganaz, egungo egoeraz eta etorkizunari

buruz hausnartu da, Arabako euskaldunen ezaugarriak zein diren aztertu da, eta euskarari buruzko diskurtso berriaz iritziak azaldu dira, besteak beste.

Azaroan, Euskaltzaindiak parte hartu du Italiako iparraldean, Civitat / Cividale del Friule herrian burutu den *Nomi, Luoghi, Identità. Toponomastica e Politiche Linguistiche* (Izenak, lekuak, identitatea. Toponomastika eta hizkuntza politika) kongresuan. Antolatzaileak Gruppo di Studio sulle Politiche Linguistiche (GSPL), Società di Linguistica Italiana (SLI) eta Società Filologica Friulana izan dira, Udineko Unibertsitatearen eta Regione autonoma Friuli Venezia Giuliaen laguntzarekin. Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria hizlari izan da biltzarrean.

Bestalde, Urepelen egin den Xalbador Egunean ere hartu du parte Akademiak.



Araban, XVI. Jagon Jardunaldien amaieran, Andres Urrutia euskaltzainburua eskultura bat ematen Txari Santiago Henrike Knörr-en alargunari



Xabier Kintana (Euskaltzaindiko idazkaria), Arantza Quiroga (Eusko Legebiltzarreko presidentea), Juanjo Pujana (Eusko Legebiltzarreko presidente ohia), Blanca Urgell EAEko kultura sailburua, Iñigo Lamarca EAEko Arartekoa eta Eusko Legebiltzarreko mahaikideak "Euskara, jalgi hadi plazara" izenburuko erakusketaren inaugurazioan, Eusko Legebiltzarrean



2

Akademia Jarduera

EUSKALTZAINDIAREN akademia-jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Lau urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetao irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste.

I. HIZTEGIGINTZA

II. GRAMATIKA

III. DIALEKTOLOGIA

IV. ONOMASTIKA

V. LITERATURA

VI JAGON SAILA

VII. EGITURAZKO BATZORDEAK

VIII. R.M. AZKUE SARIAK



AKADEMIA JARDUERA

I. HIZTEGIGINTZA

Hizkuntza Akademia batek hiztegegintza oinarri-oinarrizko eginkizuna du. Amaiturik dagoen *Orotariko Euskal Hiztegi*az gain Euskaltzaindiak beste bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.

I.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak)

I.1.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak) egitasmoa

Euskaltzaindiaren Hiztegia (Hiztegi Batua - I. itzulia - Adierak eta adibideak) izeneko hiztegiaren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen *Hiztegi Batua* da, lehen itzulian argitaratutako hitzak.

Hiztegia amaitu da eta 2012ko udazkenean aurkeztuko da.

I.1.2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak Batzorde Ahaldundua

“Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldundua” 2009an sortu zen. Euskaltzaindiaren osoko bilkuraren ahalez eta eskuz jardun du *Euskaltzaindiaren Hiztegia: adierak eta adibideak* lanaren jarraipena egiten. Hiztegia amaitzean, batzorde ahaldunduak ere bukatutzat emango du bere lana, eta desegingo da.



I.2. Hiztegi Batua

I.2.1. Hiztegi Batua (2. itzulia) Batzorde Ahaldundua

Euskaltzaindiak Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldundua sortu zuen 2010ean. Batzorde honen xedea hauxe da: Euskaltzaindiaren osoko bilkuraren ahalez eta eskuz, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua eztabaidatzeko prozedura arintzea, egitasmoaren epeak laburtuz eta egitasmo horri bukatze-data eskuragarriagoa emanez.

Aurten 3.428 forma aztertu eta ebatzi ditu, **E** eta **F** marka zuten formena. Horietatik 2.818 kendu dira, 556 onartuak izan dira eta 54 aurrerago aztertuko dira.



"Hiztegi Batua. Irizpideak, prozedurak eta tresnak" jardunaldiaren une bat



AKADEMIA JARDUERA

I.2.2. Hiztegi Batuko Lantaldea

Hiztegi Batua hiztegi arauemailea dugu. *Hiztegi Batua*-ren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuak jaso ziren. Bigarrenean erabilera urriagokoak jasotzen ari dira. Eta hau amaitzen denean, guztira, 55.000 hitzetik gora izango du *Hiztegi Batua*k. Hainbat arlotako hitz-multzoak aztertu eta prestaturik utzi ditu: elementu kimikoenak, zodiakoko zeinuenak, txanponenak, magnitudeen unitateenak, animalia-arrazenak, izen propioetatik eratorritako hitzak.

Bestalde, Hiztegi Batuko lantaldeak urteak daramatza, corpusetan oinarrituz, Hiztegi Batua osatzen duten formak lantzen eta proposatzen: *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpora eta *XX. Mendeko Euskararen Corpora*. Oinarrizko hiztegia eskuratu da iturri hauekin, baina aurrera begira egungo euskararen eskaerei erantzungo dien corpus handiago baten beharra dago. Jokabide horien behatokia da, beraz, lantaldeak bultzatu duen corpus berria: *Lexikoaren Behatokia*. Hori UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko du Akademiak.

Lexikoaren Behatokiak 10 milioi hitzeko corpora du. Corpus horretan oinarrituta,

Euskaltzaindiak ondoko urratsetarako erabaki gabe utzitako 81 forma aztertu dira. Horietatik 32 onartu dira, hau da, % 39,5. Bestalde, Euskaltzaindiak aurretik baztertu edo isildutakoak, eta corpusean 5 agerraldi edo gehiagorekin jaso diren 446 forma aztertu ditu lantaldeak, **abegikor - kolomaforma** artekoak. Horietatik 177 forma berreskuratu eta onartu ditu, hots, % 39,6.

Aurreko urteetako harremani eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2011n ere.

I.3. Zientzia eta Teknika Hiztegia biltzeko egitasmoa

Egitasmo hau 2008an hasi zen lanean, eta bere helburua hau da: zientzia eta teknologia arloetan erabiltzen diren hitz oinarrizkoak bildu eta aztertu, gero horiek Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan txertatu ahal izateko. Matematikazko terminoen zerrenda amaitu da. Fisikazko termino hautagaien zerrenda osatu da, eta %60 eztabaidatu. Astronomia eta astrofisika arloko terminoak biltzeko lanei ekin zaie, eta aditu taldea osatu da. Azkenik, Natur Zientzien alorra lantzeko prozesua onartu da.

I.4. Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa egitasmoa

Euskal hitzen orain arteko ikerketa historiko eta etimologikoetatik abiatuta, eta Orotariko Euskal Hiztegiaren bildutako informazioa baliatuta, euskal hitzen jatorria eta historia modu sistematikoan aztertzea da asmoa.


Munduan diren hiztegi etimologikoen helburua eta izaria zein den ikusi da. Hiztegi etimologikoak osatzeko dauden metodoak arakatu dira. 240 hitzen aurre-erredakzioa egin da eta beste 140 erredakzio aurreratuko prozesuan sartu dira. Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa garatzeko eskuliburuaren lehen zirriborroa idatzi da.



I.5. Lexikoaren Behatokia egitasmoa

Hiztegi Batuko lantaldeak egungo euskararen eskaerei erantzungo dien corpus handiago baten beharra ikusi zuen, gaurko testuak etengabe bilduko dituen. Jokabide horien behatokia da, beraz, lantaldeak bultzatu duen corpus berria: Lexikoaren Behatokia. UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko du Akademiak. 7.748.831 testu-hitz katalogatu dira (aurreikusitakoak baino 100.000 testu-hitz gehiago). 14.214 artikulua ere katalogatu dira.

Hainbat komunikabiderekin -*Berria*, *Argia*, *EiTB*, *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario Vasco*ekin- hitzarmenak sinatuak ditu Euskaltzaindiak, ekoitzi dituzten euskarazko testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jar ditzaten.





AKADEMIA JARDUERA

II. GRAMATIKA

Batzordeak 2011n *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – VII (Perpaus jokatugabeak)* liburua amaitu du. Liburua azaroaren 25ean aurkeztu da Euskaltzaindiaren egoitzan. Bestalde, Euskal Gramatika Orotarikoa egiten ari da, EGO txikiaren bertsioa. Aurten perpaus elkartuen eta mendeko perpaus jokatuena idatzaldi berria lantzen hasi da.

Ohi bezala, batzordea JAGONET zerbitzuaren bidez jaso diren galderei erantzuten aritu da.

III. DIALEKTOLOGIA

III.1. Euskararen Herri Hizkeren Atlas egitasmoa

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 orduetik gora dira. Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

2011n hirugarren liburukia kaleratu da, eta laugarrena amaitu da. Zazpigarren liburukiaren 173 galdera prest utzi dira, eta zortzigarren liburukiaren 31 galdera.

III.2. Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpora egitasmoa

Egitasmo honen helburua ahoz transmitituriko edukiak gorde, sailkatu, era selektiboz transkribatu eta ondoko ikerkuntzetarako oinarritzat eskaintzea da. Bilduko diren edukien artean hauek daude: lanbideak, ohiturak, ipuinak, pasadizoak, oroitzapen zaharrak, sineskerak, esaerak, jokoak, kantuak... Horretarako ahozko transmisioaren ondarea modu sistematikoaz eta metodologikoz batzeko plan bat abian jarri da.

Lan materialaren bilketa eta kudeaketari ekin zaio. Aztertu, kudeatu eta transkribatu diren herriak 21 dira. Bestalde, 303 pasarte katalogatu dira, 173 transkripzio gauzatu, 3 galdetegi berri sortu eta material transkribatuaren %60 zuzendu da. Erakunde barneko erabilerarako Corpus-a (soinua + transkripzioak) biltzen duen CD-a bideratzen hasi da.

Xarles Videgain mintzatzen, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren III. liburukiaren aurkezpenean





AKADEMIA JARDUERA

IV. ONOMASTIKA**IV.1. Onomastika batzordea**

Onomastika batzordeak ponte-izenak, deiturak eta leku-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko finkatze, gainbegiratzeko, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu. Hainbat herritako toponimia-ikerketak eta mapak gainbegiratzeko aritu da, eta EUDEL-en bitartez datozen kontsultak erantzun dira, bai eta erakundeek, elkarteek eta banakakoek egiten dituztenak ere.

Batzordeak Euskal Herriko herrialdeetako Administrazio publikoetatik (EAEko Gobernu eta Diputazioetatik, Nafarroako Gobernutik, Udaletatik) iristen diren eskariak jaso eta erantzun ditu. 12 ponte izen eta 14 deitura -horietatik hiru, bi formatan ontzat emanez- onartu dira. Bestalde, EAEko 8 herri izen eta 7 auzo izen onartu dira. Nafarroari dagokionez, auzo izen bat, 23 kontzejuko izen eta 16 toponimo nagusi onartu dira.

Euskal Herriko Udalen Izendegia, arau izaera duena, amaitu eta ekainaren 9an aurkeztu da. Euskaltzaindiak sortu berri

duen “Izenak” bilduma berriaren I. zenbakia da. “Euskal Herriko ibaiak” araugaia prestatzen jarraitzen du batzordea, bai eta santu izenen bilduma lana, eta Euskal Herriko herrien izendegia ere. Bestalde, zenbait herritako eta Gasteizko kale izendegiaren berrikusketa egin da, eta ponte izendegi berriua lantzen hasi da. Hitzaldiak eta ikastaroak eman dira, eta Onomastika batzordearen bi kidek Bartzelonan izandako ICOS Onomastikari buruzko nazioarteko biltzarrean parte hartu eta Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) egitasmoa aurkeztu dute.

IV.2. Exonomastika batzordea

Batzorde honek exonimo edo Euskal Herriko kanpoko izenak aztertzen ditu eta araugintza, irizpen eta aholkularitza lanetan dihardu.

Aurten Europako 162. araua (Anatoliako eta Hego Kaukasoko toponimia) eta 163. araua (Georgieraren eta armenieraren alfabetoetan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak) prestatu dira. Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia lantzen aritu da eta hainbat

aragai prestatu ditu, besteak beste, herri hauen toponimiari buruzkoa: Siria, Libano, Irak, Jordania, Egipto, Libia, Tunisia, Aljeria, Palestina, Israel, Arabia eta Sudan; Hego Sudan estatu berriari dagokiona; eta arabiar alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemarena.

IV.3. Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) egitasmoa

Egitasmo honen helburua, euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta corpus osoa biltzea da. Horretarako datu-base bat diseinatu eta datuak jasotzen jarraitu da. 2011n, datu-basearen egiturak berri egin dira, horren ondorioz, datuak kudeatzeko eta kontsultatzeko tresnak ere eguneratu behar izan dira.

Hainbat datu onomastiko erregistratu dira, eta datu-basean jaso. Hala, Arnaut Oihenarten *Notitia Utriusque Vasconiae* eta Pello Apezetxearen eta Patxi Salaberriren *Etxalarko etxeen izenak* lanen erauzketa onomastikoa egin da. Alfontso Irigoienek *De re philologica linguae vasconicae* bildumako I. liburukiaren informazio onomastikoa jaso da, eta berdinean egiten da ondoko lanekin: *Ponte-*



Otsailean, herriko toponimiari buruzko erakusketa Elgoibarren, Udalak antolatua



izenak artikulua (Andolin Eguzkitza - Xabier Kintana), *Estudios de toponimia navarra* (Jose Maria Jimeno Jurío), *Etxebarriko toponimia* (Asier Bidart - Ainara Apraiz), *Uri eta toki-izen batzuen euskal izendegia, orain arte bildutakoen osagarri* (Jon Etxaide), *Navarra, edo Naparroa ote da?* (Damaso Intza),

Egitasmo hau Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko urteko hitzarmenean espresuki jasota dago, eta horretarako ematen duen diru-laguntzari esker egin ahal izan da.

IV.4. Gasteizko Toponimia egitasmoa

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren bitartez jarraitu da Udalbarrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen. 2011n bildumaren hirugarren liburukia argitaratu da: *Gasteizko Toponimia III, Gasteizko Ubarrundia /Toponimia de Vitoria III, Ubarrundia de Vitoria*.



AKADEMIA JARDUERA

V. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura arloa bi sail nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira. Bestetik, euskal literaturari buruzko ikerketei ekin zaie, aro eta gai ezberdinak jorratuz.

V.1. Herri Literatura batzordea

A. Xahoren kantutegia argitaratzeko prestaketa-lanaren jarraipena egiten segitu du batzordeak. Antonio Zavalaren omenezko liburua prestatzen ari dela eta, Herri Literatura jardunaldietako testuak hautatu dira, eta argitaratzeko prest utzi.

Bestalde, urtero bezala, Xalbador Egunaren antolakuntzan parte hartu da.



Agosti Xahoren omenezko jardunaldian: Jean Haritschelhar, Ana Toledo, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Patri Urkizu eta Txomin Peillen



V.2. Literatura Ikerketa batzordea

“Euskal Literaturaren Antologia” egiten ari da batzordea. Lehen liburukia, *Euskal Erdi Aroa eta Errenazimentua*, amaitu da. Bestalde, “Agosti Xaho eta erromantizismoa Euskal Herrian” izeneko jardunaldietako hitzaldiak batu dira, *Euskera* agerkarian publikatzeko. Jardunaldi horiek 2011ko abenduan egin ziren, Baionan, Literatura Ikerketa batzordearen ekimenez.

Azkenik, Literaturaren Historiografia I. Jardunaldietako txostenak argitaratu dira *Euskera* 2010, 55, 2 agerkarian. Jardunaldiok 2010eko abenduan egin ziren.





AKADEMIA JARDUERA

VI. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du Jagon Saila, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua: Corpus eta Sustapen.

VI.1. Corpus batzordea

Euskararen corpora jagoteaz arduratzen da, hizkuntzaren kalitatea bermatzea helburu duelarik. Honen barruan JAGONET zerbitzua dago, galderen eta erantzunen datu-basea.

Batzordeak *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* izeneko lana amaitu du eta argitaratzeko prest utzi.

VI.2. Euskalkien Lantaldea

Lantaldea “Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua” egitasmoa lantzen ari da. Aurten bizkaierari dagozkion bi zerrenda landu dira: **D** letra eta **E** letra.

VI.3. Sustapen Batzordea

Batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da. Aurten, XV. Jagon Jardunaldietan aurkeztutako hitzaldiak eta txostenak bildu eta *Euskera*-n argitaratu dira, “Gazteak, aisialdia eta euskara” goiburupean.

Ikastolen Konfederazioarekin elkarlanean, *Ikastola Mugimendua. Dabilen Herria* liburuaren gaztelaniazko itzulpena landu eta argitaratu da, *El movimiento de las ikastolas. Un pueblo en marcha* izenarekin. Bestalde, aurten XVI. Jagon Jardunaldiak egin ditu, “Arabatik Arabara euskaraz” gaiaren inguruan, Arabako elkarte eta erakundeekin batera, eta Foru Aldundiaren laguntzarekin.

VI.4. Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala-EHS)

Egitasmoak euskarak eta berarekin harremanetan izan diren hizkuntzek denboran zehar izandako gizarteko izaera-bizierak aztertzen ditu; iraganaren jarioan datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolaerak, egoerak, jarrerak, jokabideak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi

ditu, Linguistika, Soziologia eta Historiografiaren artean kokatuz.

2011n, 144 sarrera dituen zerrenda bibliografikoa osatu da. Bi lan prestatu dira Euskaltzaindian aurkezteko: “Abbadiaren sariak, afixen argitan. Berariazko euskalgintzaren argitze-saioa” eta “Euskal aipamenak arabiar iturrietan”. Horrez gainera, hainbat ikersaiotako testuak aztertu dira, batzuetan toponimoak bilduz, beste batzuetan etiketatuz edota fitxa-zerrenda berriak eginez. Hauek dira: *Donostia 1761: hizkuntzak eta hiztunak; Meza euskaldun berritzearen historia: Gipuzkoa, 1960-1980; Arantzazuko Frantziskotar probintzia eta euskara XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendean; Euskal Herriaren Adiskideak eta Euskara (1763-1808); Euskara eta euskal gizartea XVII eta XVIII. garaian: lehen hurbilpena; Anton Abbadiaren lore-jokoak (1851-1897).*

Eliza munduko galdeketa soziolinguistikoko bat egin da, Iparraldeko eliza-giroan 1960tik 1980ra izandako hizkuntza-bilakaeraz. Euskal aipamena duten iturri arabiarren itzulpenaren lehen liburukia amaitu da.

Otsailean, *Euskararen Historia Soziala (EHS). Argibide bibliografikoak* liburua



Ezkerretik eskuinera: Joseba Intxausti, Andres Iñigo, Andres Urrutia eta Mikel Zalbide

aurkeztu da Euskaltzaindiaren egoitzan. “Etxeberri” bilduma berriaren lehen zenbakia da. Argitalpenaren xede nagusia Euskararen Historia Soziala (EHS) Euskaltzaindiaren egitasmoaren inguruan sortzen den hainbat material jendaurrean agertzea da.



AKADEMIA JARDUERA

VII. EGITURAZKO BATZORDEAK

VII.1. Azkue Biblioteka batzordea

Jose Antonio Arana bibliotekari akademikoa izandakoa hil denez gero, Juan Mari Torrealdai izendatu da Azkue Bibliotekako bibliotekari akademiko eta batzorde honetako buru. Bestalde, Azkue Bibliotekako lanen jarraipena egin du 2011. urtean zehar. Horrez gainera, Azkue Biblioteka indarberritzeko hausnarketa jarri du abian.

Bestalde, Euskaltzaindiak eta Olaso Dorrea Sorrerakundeak hitzarmen bat sinatu zuten Bergaran 2008an. Artxiboen alorrean betetzat eman da Olaso Dorreko Sorrerakundearekin sinatutako hitzarmen hori. Horretaz gain, Piarres Lafitteren artxiboaren katalogazioaren bigarren fasea aztertu da, epeak hiruzpalau hilabete luzatzea erabakiz. Funts bibliografikoen alorrean, EKA egitasmoa (Euskal Klasikoen Autoritateak) berrabiatu da.





VII.2. Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak batzordea (IKT)

Euskaltzaindiak sortzen dituen edukiei behar bezalako zabalkundea ematea da batzordearen eginkizuna, teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz, eta erabilera-baldintzak aztertuz.

2011n Euskaltzaindiaren webgunea berritu da. Halaber, 2011rako argitalpenen bertsio elektronikoak webguneratu dira, Hiztegi Batua eta Euskal Onomastikaren Datutegietako datuak berritu dira (arau-erabakiak) eta Orotariko Euskal Hiztegiaren 2. argitaraldia webgunearen bidez zabaldu da.

Bestalde, Lexikoaren Behatokiaren webgunearen ostatatzea hobetu da eta Euskararen Historia Soziala egitasmorako jakintza-basearen sistema produkzio-egoeran jarri da.

Plazaberri

Hego Sudan estatu berriaren izena arautu du Euskaltzaindiak

- Egilea: Jose Luis Lizundia eta Alfontso Mujika
- 2011-07-22



2011ko uztailaren 9an jaso zen Hego Sudan estatu berria (eta, dagoeneko, Nazio Batuetako 77 estatuk ezagutu dute), eta Euskaltzaindiak estatu horren izena arautu du gaur. Arau honi buruzko azalpenak eskaintzen dituzte Jose Luis Lizundia...

Euskaltzaindiaren webgune berria aurkeztuko da bihar

- Egilea: Prentsa zerbitzua
- 2011-07-21



Bihar, uztailaren 22an, Euskaltzaindiak bere webgune berria aurkeztuko du. Binartik aurrera, itxuran ez ezik, egituran

Hizkuntza baliabideak

- Hiztegiak eta Corpusak
- Gramatika
- Dialektologia
- Onomastika
- Literatura
- Aruak
- Euskararen sustapena
- Argitalpenen bertsio elektronikoak



Agenda

Uztaila

Euskaltzaindiaren webgune berriaren aurkezpena

2011/07/22 (12:00)

Euskaltzaindiaren Hiztegia, Adierak eta Adibideak batzorde ahaldundua, Donostia, Bilbo eta Iruñean (bideohitzaldiz)

2011/07/26 (10:00)

Hiztegi Batua (2. itzulua) batzorde ahaldundua, egoitzan eta Donostian (bideohitzaldiz)

2011/07/26 (15:30)

+ Egutegi osoa ikusi

Gure agendan harpidetu:

RSS bidez

iCal bidez

Hiztegiak eta Corpusak

Hiztegi Batua

Hiztegi Batu Oinarriak

XX. mendoko Euskararen Corpus Estatistikoa

Orotariko Euskal Hiztegia

Literatura Terminoen Hiztegia

Lexikoaren Behatokiaren Corpusa

Hasiera - Orotariko Euskal Hiztegia

Orotariko Euskal Hiztegia

Bilatu


Bilatu nahi duzun forma:

Bilatu

Ikusi ere:

- Argibideak
- Jaietako gunea
- Erreferentzia bibliografikoak (PDF 335,8 Kb)
- Testu zerrenda (PDF 78,53 Kb)
- Laburdurak (PDF 83,98 Kb)

2. argitaraldia, 2011



Orotariko Euskal Hiztegia Euskaltzaindik burutu duen egitasmo handienetakoa da, zailtzarik gabe, handiena ez bada.

Hiztegi gintzan ari direnentzako nahitaezko erreferentzia da. Hiztegi historiko honetan jaso dira euskaraz idatzi diren liburu esanguratsu gehienak, oro eta euskaldi ezberdinetakoak.

Hamasei liburukitan argitaratuta dago hiztegi hau eta, Euskaltzaindik orain teknologia berriek eskaintzen duten



AKADEMIA JARDUERA

VII. 3. Euskaltzaindiaren Historia egitasmoa

Akademiaren historia jasotzea du xede egitasmo honek. 2011. urtean, batetik, egitasmoa I. atala, hots, “Aurrekariak eta sorrera” lantzen jarraitu da. Sarrera orokorraren zirriborroa egin da. Besteak beste, Azkue Bibliotekako eta Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako Foru Artxibategietan kontsultak egin dira, eta Eusko Ikaskuntzak Miramarren duen Artxibategi Historikoa kontsultatzeko beharrezko gestioak egin dira. Luis Villasante euskaltzainburu zen garaiko azken euskaltzainei elkarrizketak egiten jarraitu da, eta Villasante bera euskaltzainburu hautatu baino lehenago izendaturiko euskaltzain urgazleak edota ohorezkoak ere elkarrizketatu dira. Lojendioren garaian izendatutako beste zenbait euskaltzainekin ere hitz egin da.

Azkue, Etxaide, Lojendio eta Lekuona euskaltzainburuei buruzko azpiatalen behin-behineko eskema orokorrak egin dira.



VII.4. Erlea aldizkaria

2011n *Erlea* aldizkariaren laugarren eta bosgarren zenbakiak argitaratu dira.

Erlea 5 aldizkariaren aurkezpena. Bernardo Atxaga, Gorka Martinez (BBK) eta Andres Urrutia





AKADEMIA JARDUERA

VIII. R. M. AZKUE SARIAK

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Sariak bi genero ditu: narrazioa eta olerkia. Genero bakoitzak bi maila dauzka: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat. R. M. Azkue Sariak idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusia.

Hona hemen 2011ko R. M. Azkue saria irabazi dutenak:

Bestalde, azaroan, *Narrazioak eta olerkiak 2010* liburua kaleratu da.

Epaimahaikoak hauek izan dira:

- A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.
- B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Mayi Iza.

Saria	Lan saritua	Egilea	Ikastegia
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Ez naiz zure printzesa</i>	Anne Lapeira	Urola ikastola (Azpeitia)
	2) <i>Maite, maite... ez bakarrik bakoitzak bere burua</i>	Maddi Petralanda	S. Altube (Gernika)
	3) <i>Michelen misterioa</i> Aipamenak: - <i>Mesopotamiako mamua</i> - <i>Zein zaila den semea izatea</i>	Evangelina Descalzo Julen Antxia Xabier Oianguren	Igantziako eskola (Igantzi) Ant. Luberri (Donostia) S. Altube (Gernika)
A: poesia 10 - 13 urte	1) <i>Norbait joan da</i>	Amaia Rodriguez	Iparragirre (Urretxu)
	2) <i>Bizirik gabe bizi den pertsona</i>	Malen Barriola	Iturrana (Iruñea)
	3) <i>Gizon herrenaren olerkia</i>	Maite Larrarte	Txinkorta (Bidegoian)
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Ez dago musik!</i>	Maialen Akizu	Iparragirre (Urretxu)
	2) <i>Gauaren beharra</i>	Ainhoa Urien	Fr. J. Zumarraga (Durango)
	3) <i>Ainarak bezala...</i>	Mikela Atxoarena	Xalbador (Kanbo)
B: poesia 14 - 17 urte	1) <i>Idazten hasi da</i>	Maialen Akizu	Iparragirre (Urretxu)
	2) <i>Zer da denbora?</i>	Maialen Elortza	Haurtzaro (Oartzun)
	3) <i>Los Angeles, 2019</i>	Mikel Aranburu	Iparragirre (Urretxu)

Saritu guztiak, Gorka Martinez BBK Fundazioko buruarekin eta Andres Urrutiarekin





Euskaltzaindiaren erakusmahaia, Durango Euskal Liburu eta Disko Azokan



3

Erakundearen zerbitzuak

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi loturik dauden zerbitzuak: Idazkaritza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpen eta Banaketa, Prentsa eta Komunikazioa eta Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak. Jagonet Zerbitzua, aldiz, Donostiako ordezkartzan dago.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburutan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkartzak: Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñea. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak, hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, bai egoitzatik eta baita ordezkartzetatik bideratzen dira.

Bost bulegoetara etortzen diren hiritarren eskabideak etengabe erantzuten dira ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere toponimia eta euskararekiko beste gai ugari aztertuz. Egoitzan eta ordezkartzetan ponte-izen eta deiturari buruzko ziurtagiriak egiten dira.

Horrez gainera, egoitzako eta Gasteizko ordezkartzaren aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekirik egon dira euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako.

I. AZKUE BIBLIOTEKA

II. ONOMASTIKA ZERBITZUA

III. ARGITALPEN ZERBITZUA

IV. ARGITALPEN/BANAKETA ZERBITZUA

V. IKT ZERBITZUA

VI PRENTSA ETA KOMUNIKAZIOA ZERBITZUA

VII. JAGONET ZERBITZUA



ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

I. AZKUE BIBLIOTEKA

Liburuek, aldizkariak eta antzeko agerkariak osatzen dute Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK). Lau prozesu desberdin sartzen dira hemen: erosketa/eskuraketa, katalogazioa, erabiltzaileekikoak (kontsulta, mailegua, kopia) eta mantentzea.

2011n, 530 sarrera berri egin zaizkio ABK katalogoari, eta horietatik 243 osorik katalogatu dira: 220 Euskaltzaindiaren argitalpenei dagozkienak (141 *Euskera* agerkariaren fitxa analitikoak dagozkienak, 62 Iker bildumari eta 17 liburu) eta beste 23ak bestelakoak.

Pruden Gartziak zuzentzen duen Azkue Bibliotekaren argazki artxiboaren funtsak osorik katalogatu dira (2010era arte) eta, biblioteka zerbitzuari dagokionez, prest daude interneten jartzeko; une honetan 1.560 argazki-dosier daude eta horietatik 4.866 argazki hautatu dira ordenagailu-pantailan zuzenean ikusi eta deskargatu ahal izateko. Horrekin batera azpimarratzekoa da hiru funts artxibistikoren digitalizazioa: Pierre Broussain (1.459 irudi), Norbert Tauer (11.414 irudi) eta Jokin Zaitegi (11.427 irudi). Lehen bien funtsak osorik digitalizatu dira, azkenarena bakarrik bi serie: «Gutuneria» eta «Euzko Gogo».



Andres Urrutia, Txomin Garcia (Euskadiko Kutxa presidentea) eta Julio Gallastegi (zuzendari nagusia), Euskadiko Kutxak Larramendiren "Hiztegi Hirueleduna"-ren lehenbiziko edizioaren ale bat Euskaltzaindiari laga dion ekitaldian

Bestalde, osorik katalogatu da EHUko Letra Fakultateko eskuizkribu bilduma baten bertsio digitala. Orotara 7 serie eta 207 dosier katalogatu dira. Ildo berean, Manuel Larramendi Instituto Bibliographicoren eskariz, 139 libururen atariak digitalizatu dira, Gipuzkoan 1900era arte argitaratutako liburuei dagozkienak: gehienak ale bakanak dira, beste biblioteketan nekez aurkitzen direnak.

Erakundearen beraren barruan bi erakusketen antolaketan kolaboratu da: *Euskera* agerkariari buruzkoa eta Manuel Larramendiri buruzkoa. Orobat, Eusko

Legebiltzarrekin kolaboratu da XVI-XVII. mendeetako liburuez egindako erakusketan (Etxepare, Leizarraga etab.). Aipagarria da Akademiak ekimen horretarako Leizarragaren *Testamentu Berriaren* (1571) bere alea utzi zuela maileguan eta, halaber, Etxepareren *Lingua Vasconum Primitiaeren* (1545) edizio eleaniztun berri bat bideratu dela.

Nafarroako Iruñeko Felix Arellano zenaren familiak liburu dohaintza bat egin dio Euskaltzaindiari liburuok Iruñeko ordezkarietan kokatu dira. Orobat, HABE erakundearen bibliotekak bi aldizkari bilduma eman dizkio dohaintzan Euskaltzaindiari: *Langages* eta *La linguistique*.



Gasteizko Toponimia III, Gasteizko Ubarrundia liburuaren aurkezpena. Argazkian, Jose Luis Lizundia (egitasmoaren zuzendaria), Patxi Lazkoz (Gasteizko alkatea), Andres Urrutia eta Elena Martinez de Madina (egitasmoaren teknikaria)

II. ONOMASTIKA ZERBITZUA

Hiru arlo nagusitan banatzen da lana: deiturak, ponte izenak eta leku-izen edo toponimoak. Erakunde, enpresa zein gizabanakoengandik datoz galderak, eta batzuek berehalako erantzuna behar izaten dute –jaioberriak erregistratzeko, adibidez– eta beste batzuek ikerketa luzeagoa. Mikel Gorrotxategi da zerbitzu honen arduraduna.

2011n 200dik gora pertsona etorri dira egoitzara beren kontsultak egitera, gehienbat pertsona-izenen inguruan. Bestalde, 1.000 telefono dei inguru jaso dira, partikularrek zein erregistroek eginak. Tokiek eta deiturek

sortutako zalantzak kontsultatzen badira ere, batez ere pertsona izenak dira interes handiena sortzen dutenak. Hala, 700 kontsulta inguru jaso dira izenei buruz, eta horietatik 200 kontsultatik gora egin dituzte partikularrek, eta beste horrenbeste erregistroek. Bestalde, posta elektronikoaren bitartez ere egiten dira galderak eta hemen ere izenak dira gehien kontsultatzen direnak. 2.000tik gora mezu erantzun dira, zifra horren erdia pertsona-izenei dagokie.

EUDELein indarrean dagoen hitzarmenak jaso bezala, udalei Onomastika alorreko aholkularitza ematen zaie. Horretaz gain, Onomastika batzorderako lanak ere egiten ditu.



ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

III. ARGITALPEN ZERBITZUA

Argitalpen Zerbitzuaren bitartez, jarraiko argitarabidea gauzatu da 2011. urtean:

- *Euskera, 2010, 1.* Egileak: Batzuk.
- *Euskera, 2010, 2.* Egileak: Batzuk.
- *Euskera 2010, 3.* Egileak: Batzuk.
- *Euskaltzaindiaren 2010eko Oroitidazkia* (euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez).
- *Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra: Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina.* CD formatua. Egileak: Batzuk.
- *Egiategiren filosofo hüskaldunaren ekheia* (bigarren liburukia). Paratzailea: Txomin Peillen.
- *Escritores euskericos contemporáneos.* Egilea: Gorka Aulestia.
- *Euskararen Herri Hizkeren Atlas III.*
- *Euskararen Historia Soziala. Argibide Bibliografikoak.* Egilea: Joseba Intxausti.
- *Erlea* aldizkariaren 4. eta 5. zenbakiak. Zuzendaria: Bernardo Atxaga. Egileak: batzuk.
- *Euskal Herriko Udalen Izendegia.* Prestatzaileak: Andres Iñigo eta Patxi Galé.



2011. urteko Sarako Idazleen Biltzarrean. Ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia, Manuel Padilla, Henri Duhau, Jüje Etxebarne eta Txomin Peillen

- *El movimiento de las ikastolas. Un pueblo en marcha.* Euskaltzaindia eta Ikastolen Elkartearen arteko lankidetzaz.
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - VII (Perpaua jokatu gabek).* Egileak: Batzuk.
- *Kadet eta Bettiriño.* Paratzailea: Manuel Padilla.
- *Narrazioak eta olerkiak, 2010.* Egileak: Batzuk.
- *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa.* Egilea: Pello Esnal.
- *Plazaberri* berripapera. Zenbaki bat kaleratu da.
- *Zenbait argitalpen elektronikoa.*
- *Gratien Adema "Zaldubi": Beste zenbait prediku.* Prestatzailea: Henri Duhau.
- *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian.* Egileak: Erramun Baxok - Jean Baptiste Coyos.
- *Zuberoako Antzertia edo Pastoral.* Egilea: Junes Casenave-Harigile.
- *Eugene Goyheneche: Onomastique du Nord du Pays Basque.* Prestatzailea: Xarles Videgain.
- *Euskaltzaindia eta Nafarroa, liburuxka, 2.* argitaraldia. Prestatzailea: Andres Iñigo.
- *Euskaltzaindia eta Araba, liburuxka.* Prestatzailea: Manu Ruiz Urrestarazu.
- *Leioako leku-izenak.* Egileak: Iratxe Lasa, Mikel Gorrotxategi, Goizalde Ugarte.



ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

IV. ARGITALPEN/BANAKETA ZERBITZUA

Euskaltzaindiak 2011n 18 argitalpen aurkeztu ditu. Batzuk koedizioan badira ere, argitalpen ia guztien salmenta osoa Akademiak egiten du. Oso kasu gutxitan, koeditoreak ere saltzen du. Ale gehienak banatzaileen bidez saltzen dira (2011: 1.315 ale), azoka eta zuzeneko eskarien bidez ere (2011: 266 ale), eta liburu dendei ale gutxi batzuk (2011: 71 ale). Jon Artza da zerbitzu honen arduraduna.

Akademia DILVE proiektuan integraturik dago eta Euskadiko Editoreen Gremioko kide da. Euskaltzaindiaren argitalpen ugari, formatu desberdinetan, www.euskaltzaindia.net webgunean ikusgai eta erabilgarri daude.

2011n egin diren argitalpenen artean jendarteko zabalkunde handikoak izan dira, besteak beste, honakoak: *Hiztegi Batua* (2010); *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak VII: Perpaus jokatu gabek; Gramatika Emendakinak. Zuberoko Euskaraz; Euskal Herriko Udalen Izendegia* eta *Erlea* aldizkari literarioaren 4. zenbakia izan dira. Bestalde, *Euskera* agerkariak ikerketari buruzko edukiak indartu ditu, berriztatu ondoren.

V. INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUA

IKT batzordearen zuzendaritzapean, berrikuntza teknologikoaren arloan, lan hauek egin dira, besteak beste: Euskaltzaindiaren webgunea berritzea, Euskaltzaindiaren argitalpenen bertsio elektronikoak eta arau-erabakiak webgunearen bidez zabaltzeko prestatzea, Lexikoaren Behatokiaren Corpora ostatatzen duen zerbitzaria aldatzea, Euskal Corpus Onomastikotik arau-erabakien datuak erauzi eta Euskaltzaindiko webgunearen bidez gizarteratzeko prozedura automatizatzea, Euskararen Historia Sozialaren jakintza-baserako aplikazioa instalatu eta martxan jartzea, Egoitzako bisitarietzako WIFI zerbitzua berrantolatzea, Donostiako bulego berrian azpiegitura informatikoa eta telekomunikazio-sistema ezartzea, Euskaltzaindiko sare telematikoa urrunetik atzitu eta administratzeko prozedurak landu eta dokumentatzea.

Iñaki Kareagaren ardurapean garatzen den zerbitzu honi sistema informatikoak mantentzea ere badagokio.

VI. PRENTSA ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUA

Amaia Okarizen ardurapean dagoen zerbitzu honek honako helburu hauek betetzen ditu: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko, gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea.

Bestalde, euskaltzain curriculumak egitea eta eguneratzea zerbitzu honi dagokio, webguneko albisteak gaurkotzearekin batera. Erakundearen hileroko barnerako informazio buletina, *Albiste Orria* deritzana, eta Oroitidazkia egiten ditu Idazkariordearekin batera. *Plazaberri* bloga kudeatzea ere zerbitzu honi dagokio.

2011n, egindako lanen artean hauek aipa daitezke: Euskaltzaindiaren webgune berria; Jean-Baptiste Coyos euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia; Koldo Mitxelena sariak; Luis Villasante Euskararen Ikergunearen inagurazioa, Donostian; XVI. Jagon Jardunaldiak “Arabatik Arabara euskaraz”; ageriko bilkurak eta jardunaldiak; euskaltzainen heriotzak (Vahan Sarkisian, Fernando Mendizabal, Xabier Gereño, Jose Antonio Arana Martija) edota, besteren artean, Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) III. liburukiaren eta bestelako argitalpenak.



ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

VII. JAGONET

2011n, Euskaltzaindiaren JAGONET kontsulta- eta aholku-zerbitzuak 10 urte bete ditu. 2001eko martxoan abian jarri zenetik, 835.517 bisitarik kontsultatu dute JAGONETeko galde-erantzunen datu-basea. Bestalde, hamar urteotan, posta elektronikoz galderak bidali dituzten 10.513 lagunek hartu dute bana-banako erantzuna.

JAGONETen eginkizuna euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitea da, euskararen erabilera argitzea, euskaltzaleon lagungarri. Euskaltzaindiaren arauak eta erabakiak aurki daitezke Interneten: Arauak, Hiztegi Batua, Izendegiak (pertsona- nahiz leku-izenak), Orotariko Euskal Hiztegia, *Euskera* aldizkaria, eta abar. Hor begiratu ondoren, JAGONETeko galde-erantzunen datu-basea kontsulta daiteke. Azkenik, euskaltzaleak bilatzen duena hor ere aurkitzen ez badu, orduan Euskaltzaindiari bidal diezaioke bere zalantza JAGONETeko galdelekura. Euskaltzaindiaren Interneteko galdeleku hori posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da, eta pribatua galdegilearekiko.

2011ko datuak: JAGONETeko datu-basean 542 galde-erantzun ageri dira

webgunean, eta 86.415 aldiz bistaratu dira galde-erantzun horiek. Galdelekuan, berriz, 991 galdera jaso dira eta 986 erantzun banan-banan. Joxe Ramon Zubimendi da zerbitzuaren arduraduna.

The screenshot shows the Euskaltzaindia website interface. At the top, there is a green header with the logo and the name 'EUSKALTZAINDIA'. Below the header, there is a navigation menu with links to 'ERAKUNDEA', 'ARGITALPEIAK', 'AZKUE BIBLIOTEKA', 'HIZKUITZA-KOITSULTAK', 'IKER/JAGON-TEGIAK', and 'E-MAIL'. The main content area is titled 'Galde-erantzunen datu basea'. On the left, there is a sidebar with a list of links under the heading 'Kontsultak', including 'Euskaltzaindiaren Arauak', 'Hiztegi Batua', 'JAGONET', 'JAGONET zerbitzua', 'Galde-erantzunen datu-basea', 'Galdelekua', 'Izendegiak', and 'e-AEB (kontsulta edukia jaiateko)'. The main content area displays a search result for the query '-ganako/kiko' maitasuna, gorrotoa, konfiantza...'. The result includes the following information:

- Izenburua:** "-ganako/kiko" maitasuna, gorrotoa, konfiantza...
- Galdera:** Zein da hobestekoa, "elkarrenganako maitasuna" ala "elkarrekiko maitasuna/gorrotoa/konfiantza"?
- Erantzuna:** Zalantzarik gabe, "elkarrenganako maitasuna" da hobestekoa: hain zuzen ere, horixe da euskal literatura-tradizioan gehien erabiltzen den egitura. Badira "elkarrekiko maitasuna"ren adibideak ere, baina oso-oso gutxi. Bestetik, "-ganako gorrotoa" edota "-ren kontrako/aurkako gorrotoa" dira hobestekoak; izan ere, "-kiko gorrotoa" duen adibiderik ez baitugu aurkitu tradizioan. Orobat "konfiantza"rekin ere: "-ganako konfiantza" da hobestekoa, askoz ere erabiliagoak baitira egitura hori edota "konfiantza ...-gan" modukoak. Bestea gaitzetsi gabe, ordea; izan ere, "ki(la)ko konfiantza" moduorik aurkitu ez dugun arren, badira horren oinarri izan daitezkeen egiturak: alegia, "konfiantza ...-kin/-gaz" gisakoak. Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-kiko" sarrera.
- Data:** 2001/10/22
- Erantzulea:** Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazki.

At the bottom of the page, there is a Creative Commons license logo (CC BY-NC-SA) and the text: 'Orrialde honetako dokumentu, zerrenda eta datu-baseak Creative Commons Aitorlu-EzKomertziala-PartekatuBerdin baimen baten mende daude.' Navigation arrows for 'atzera' and 'gora' are also visible.



4

Herri administrazio eta erakundeak

Euskaltzaindiak hitzarmenak ditu hainbat herri administrazio, erakunde, komunikabide eta elkarterekin. Hona hemen zerrenda:

- Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Diputazioak
- Nafarroako Gobernua
- Eusko Legebiltzarra
- Cervantes Institutua
- Espainiako Administrazioa
- Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la Langue Basque
- Frantziako Institutu Geografiko Nazionala
- EUDEL, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Erandio, Zornotza, Azkoitia, Oiartzun, Berriz, Gernika, Getxo, Sopela, Ajangiz, Berriz, Elgoibar, Okondo, Leioa, Artziniega, Abadiño, Zierbena, Orozko, Gernika-Lumo eta Aiara.
- UZEI
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Udako Euskal Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Euskaltel
- EITB
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
- Topagunea
- Feve
- Bizkaia Irratia
- Euskarazko Komunikazio Taldea
- Labayru Euskal Kulturaren Erakunde
- Elhuyar Fundazioa
- HABE (Liburutegia)
- Olaso Dorrea Sorrerakunde
- Euskalerrria Irratia
- *Berria* egunkaria
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (HAEE – IVAP)
- Bergarako Irigoyen Patronatua
- Arantzazuko Frantziskotarrak eta Bizkaiko Foru Aldundia
- Unesco Etxea
- *Argia* aldizkaria
- Azkue Fundazioa
- *Deia* egunkaria
- *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria
- *El Diario Vasco* egunkaria
- Mondragon Unibertsitatea
- Mintzola Fundazioa
- Bilbao Bizkaia Kutxa
- Etxepare Euskal Institutua
- Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Herriko Lurralde-Dekanotza
- Errioxako Unibertsitatea
- Bilbo Zaharra euskaltegia
- Bilbao Bizkaia Kutxa
- Euskadiko Kutxa
- Gipuzkoako Kutxa
- Caja Vital Kutxa



Jose Luis Lizundia (diruzaina), Aurelia Arkotxa (buruordea eta Iparraldeko ordezkaria), Andres Urrutia eta Frantxua Maitia (EEP erakunde presidentea), Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena sinatzen



Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak urteko lankidetzeta hitzarmena sinatu dute, martxoan. Ezkerretik eskuinera: Julen Calvo, Andres Iñigo, Andres Urrutia, Xabier Azanza, Jose Luis Lizundia eta Xabier Kintana



INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS
EUSKALTZAINDIA
CONSELLO DA CULTURA GALIÇA

 Institut
d'estudis
Catalans
PUBLICACIONS
Més d'un centenar
de publicacions a l'any
dedicades a la recerca científica

www.inya.es





5

Webgunea gizarteratze lana

I. Webgunea

2011n, Euskaltzaindiak bere webgunea eraldatu du, eta itxura aldatzeaz gain, eduki berriak ere gehitu dizkio. Webgune berriaren aurkezpena uztailearen 22an egin da, Akademiaren egoitzan. Webgune berrizatuak betidaniko informazioa ematen du: batetik, erakundeari buruzko informazio zabala, eta bestetik, Euskaltzaindiaren Arauak, Hiztegi Batua, Izendegiak, Corpusak edota Azkue Bibliotekaren eta Argitalpen Katalogoak ere. Horrez gainera, badira bi eduki berri: Orotariko Euskal Hiztegiaren bertsio berria eta *Auspoa* bildumaren artxiboa; azken bilduma horren liburuak bere webgunean eskaini ahal izateko, Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena eta laguntza izan ditu.


Euskaltzaindiaren webguneak 655.590 bisita izan ditu 2011n. Bestalde, webgune orriek 4.715.928 bistaratze izan dituzte urte osoan. Era berean, Akademiaren webgunean gehien bisitatutako edukiak Euskal Onomastikaren Datutegia eta Hiztegi Batua izan dira.

www.euskaltzaindia.net	2011
1) <i>Bisitak, guztira</i>	655.590
2) <i>web-orrialde bistaratzeak:</i>	
Zuzeneko sarbideak webgune atarira	165.039
Hiztegi Batua	703.114
Euskaltzaindiaren Arauak	104.589
OEH (Orotariko Euskal Hiztegia)	462.801
JAGONET zerbitzua	86.415
EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia)	2.036.525
Argitalpenen katalogoa	59.580
Beste guztiak	1.097.865
Web-orrialde bistaratzeak, guztira	4.715.928



WEBGUNEA GIZARATERATZE LANA

2011ko BISITEN ESTATISTIKAK





17. Korrikak Euskaltzaindia omendu du

II. Gizarteratze lana

Aurretik esan bezala, Euskaltzaindiaren bost bulegoetara etortzen diren hiritarren eskabideak etengabe erantzuten dira. Ponteizen eta deituren inguruko zalantzak argitzeko, edota ziurtagiriak eskatzeko, jende asko etortzen da Akademiara. Azkue Bibliotekara ere jendea hurbiltzen da, hor gordetzen diren liburu, aldizkari eta dokumentuak kontsultatzeko. Oro har, talde bisitak antolatzen dira Euskaltzaindia bisitatzeko. Bisita horiek Azkue Bibliotekan artatzen dira.

Bestalde, egoitzako eta Gasteizko ordezkartzaren aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekita egon dira euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako. Bilboko aretoan Bilbo Zaharra Forum elkarteak, besteak beste, honakoak ekarri ditu Akademiara: Maialen Lujanbio, Kepa Junkera, Xabier Amuriza, Ander Lipus, Jon Maia, Amets Arzallus, Odei Barroso, Sustrai Colina, Miren Agur Meabe, Joseba Tapia. Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika Pauso* nobelaren inguruko jardunaldietan, aldiz, hauek izan dira: Unai Elorriaga, Juan Garzia, Arantxa


Urretabizkaia, Jon Juaristi, Eider Rodriguez eta Ur Apalategi.

Horrez gainera, besteak beste, honako erakunde eta elkarte hauek erabili dute aretoa: Sabino Arana Fundazioak, Eusko Jaurlaritzak, Topaguneak, AEK-k, IRALEK; Utriusque Vasconiae argialetxeak, Mendebalde Kultur Alkartek, Kontseiluak, Gabriel Aresti euskaltegiak, zenbait ikastetxeak, Bostak Bat kultur elkarteak, Hamaika Telebistak, Garabide elkarteak, Euskara Elkarteen Mugimenduak, Azkue Fundazioak eta Bizkaia Irratiak.



WEBGUNEA GIZARTERATZE LANA

Hauek dira Euskaltzaindiaren egoitzan izandako bisitak, 2011n:





6

Euskaltzaindiaren emaitza ekonomikoak eta galdu irabazien kontua

URTE AMAIERAKO Balantzea Euskaltzaindiko ondarearen egoera agertzen duen agiria da. Balantzeak erakundeak daukan ondarearen zerranda zehazten du, ondare hau sortu duten finantza baliabideekin batera.

Balantzeak hiru atal ezberdin bereizten ditu:

- Aktiboa: Erakundeak daukana (eraikinak, makinak, dirua,...).
- Pasiboa: Erakundeak bere aktiboa osatzeko erabili dituen kanpoko baliabideak.
- Ondare Garbia: aktiboa osatzeko erabilitako berezko funtsak.

Urteko Galdu eta Irabaziak Euskaltzaindiak izan dituen diru-sarrerak eta gastuak islatzen ditu, eta bien arteko diferentziak ekitaldiko emaitza eskaintzen du. 2011ko ekitaldiari dagokionez, hona hemen nabarmentzeko oharrak:

- 1.- Euskaltzaindiak ekitaldi ekonomiko orekatua izan du. Hots, gastuak diru-sarreretara egokitu dira, diru-sarreraren exekuzioak ezarri duen langa gainditu gabe.
- 2.- Herri Aginteek Euskaltzaindiari ematen dizkioten dirulaguntzak beherantz etorri diren heinean, Euskaltzaindiak finantzabide-iturri berriak ireki ditu, besteak beste, Aurrezki Kutxenak, etorkizunari begira ere baliagarriak izan daitezkeenak.

3.- Gastuak egokitzeko orduan, efizientzia bilatzea izan da irizpide nagusia. Horrek gastu-partida guztien azterketa eta lehentasunak finkatzea eskatu izan du.

4.- Testuinguru ekonomiko zailean egonagatik, Euskaltzaindiak aurreikusitako plan osoa bete du. Eskaintzen dituen zerbitzuak, batzordeek lantzen dituzten plan akademikoak, ikerketa egitasmoak eta argitalpen guztiak bete egin dira, baliabide urriagoekin.



EUSKALTZAINDIAREN EMAITZA EKONOMIKOAK ETA GALDU IRABAZIEN KONTUA

AKTIBOA (euroak)

AKTIBO EZ-KORRONTEA	1.126.411
Ibilgetu ukiezina	60.499
Patenteak, lizentziak eta markak	16.986
Aplikazio informatikoak	43.513
Ibilgetu materiala	1.035.430
Lurrak eta eraikuntzak	680.693
Instalazio teknikoak eta gainerako ibilgetu materiala	354.737
Epe luzeko finantza-inbertsioak	30.482
Gainerako aktibo finantzarioak	30.482
AKTIBO KORRONTEA	1.463.656
Izakinak	43.950
Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak	35.760
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	759.728
Hainbat zordun	40.804
Zordunak, Herri Aginteak	718.924
Epe laburreko finantz inbertsioak	1.755
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	622.463
AKTIBOA GUZTIRA	2.590.067

PASIBOA (euroak)

ONDARE GARBIA	1.573.799
Fondo propioak	1.278.039
Aurreko ekitaldietako gairidunak	1.278.039
Jasotako dirulaguntzak eta dohaintzak	295.760
PASIBO EZ-KORRONTEA	85.649
Epe luzeko doikuntzak	85.649
PASIBO KORRONTEA	930.619
Epe laburreko zorrak	19.034
Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	903.835
Hornitzaileak	336.927
Langileria	40.106
Hartzekodunak, Herri Aginteak	526.802
Epe laburreko aldizkatzeak	7.750
PASIBOA GUZTIRA	2.590.067



EUSKALTZAINDIAREN EMAITZA EKONOMIKOAK ETA GALDU IRABAZIEN KONTUA

GALDU-IRABAZIEN KONTUA (EUROAK)

Ekitaldia	2011
Instituzioaren berezko jardueraren sarrerak	3.601.012
Salmentak, promozioak eta lankidetzaz hitzarmenak	187.210
Ekitaldiko ustiapeneko dirulaguntzak	3.413.802
Izakinetak aldakuntzak	2.493
Ustiapeneko bestelako sarrerak	2.861
Pertsonal-gastuak	-1.443.949
Soldatak, lansariak eta antzekoak	-1.153.698
Karga sozialak	-290.251
Ustiapeneko bestelako gastuak	-1.997.392
Kanpoko zerbitzuak	-1.917.282
Tributuak	-2.346
Zordunen narriadura	-72.764
Ustiapeneko gainerako gastuak	-5.000
Ibilgetuaren amortizazioa eta galerak	-183.143
Jasotako dirulaguntzen egozpena	4.240
Bestelako emaitzak	17.913
USTIAPENeko EMAITZA	4.035
Sarrera finantzarioak	4.750
Balore negoziagarriak eta bestelako sarrerak	750
Doikuntzen eguneratzea	4.000
Gastu finantzarioak	-8.785
Hirugarrenen zorrenak	-8.785
EMAITZA FINANTZARIOA	-4.035
EKITALDIKO EMAITZA	0



EUSKALTZAINDIA